

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

Gaituzte



UXUE APAOLAZA LARREA

Hauteskunde kanpainak eta gauek eskaintzen didaten adrenalinaldira pozik murgiltzen naiz aukera dagoen bakoitzean. Sistemak eskaintzen didan kontrolpeko abenturara. Gurean egiten diren hauteskunde guztiei, hala ere, "EAJren autoestima ariketak" esaten nien, grazia gutxiz, gurean hauteskundeak ere, beti berdin amaitzen baitira. "Zergatik sinetsi dut berriro". Aurten ere horretarako prestatu nintzen. Tiro baten oihartzuna berpiztera zetorren titular batek egin zuen kirrinka.

Tira, ba fokoa beste nonbait jarri beharko nuen, telebista publikoaren funtzioan, esaterako, gure telebista publikoarena. Hauteskunde eztabaidak zenbat, zenbat hizkuntza bakoitzean, euskarazkoak hala ikusi nahi ditugunek merezi dugun mailan egiteko hautagaien gaitasunaz. Indarkeria zantzuak zituen Gasteizen aurkitutako gorpuak.

Eta bat-batean ez, sondeoak ikusten hasi orduko, hasi dira *aia-mak*, eta lagunak batekin komentarioa "itxaropenaren tortura ere ez digute barkatuko", "gero, dena berdin geldituko da". 50 urte zituena Oriokoak. Baina oraingoan ez, EAJ bat-batean ez da mugiezina, zerbait aldatu da, poz kolpe bat sentitu dugu. 32 Gasteizkoak, eta hiru urteko haur batek orduak pasa ditu ama hilaren ondoan.

Nire pozek, tangoetakoek bezala, gutxi irauten dute, beti daude tragediaren bezperan. Ez gara independenteak, eta urdinez jantzi-tako Espainiari azken unean baino begiratu ez badiogu ere, hark irents gaitzake laster. Agian uste nuena baino gutxiago aldatu dira gauzak. Eta Espainiak Ayusoren irribarreaz begiratzen digu, Voxen errekonkistarako deiaz. Eta arnasa hartu ezinik amaitu dugu gaua, beldurrak ia bat. Bi hil gaituzte. ●



ADUR

TEKNOLOGIA

Beste teknologia bat, beste politika bat

Gizakion historiako eraldaketa nagusiak memoria kanporatzeko eta transmititzeko teknologiek in suertatu dira. Lengoia eta bere espresio idatziaren teknologiaren garapenak gure gizartearen garapenerako funtsezkoak izan dira. Noizbait, gainera, gure gorputzaren memoria ere kanporatzen hasi ginen, makinaren bitartez, gorputzentzat neke-tsua diren lanak gagnetik kentzeko.

Sortzea gizaki guztiok dugun ahalmena da. Sortzea, ordea, ez dago gizaki guztion eskura. Sortzeak eta sorkuntza

gizarteratzeak kostu handia dute eta horren bueltan legeak eta merkatuak sortu dira, klase sortzaile eta banatzaile bat mantentzeko. Testu, musika, poesia, software, diseinu eta abarrek, ordea, natura askea dute, inork ezin du kontrolatu kalean entzundako abestia kantatuko ez duzunik, ikusi duzun diseinua errepikatzen ahalmena izango ez duzunik.

Egun, sortzeko modu berriak gartzatzen gabiltza, gure herri, kultura eta aukeretan eragiteko botere handia dutenak. Eraldaketa hau ulertu ezinean,



DIANA FRANCO

gehienok gertatuko denaren begirale hutsak gara. Egiteko modu hauek sorkuntza legeen baitan babesturik daude, konplexuak dira, ezin ditugu ikuskatu, eta ondorioz ezta errepikatu ere. Baina ikuskatu ezin dugun teknologia hau ulertzeri itxaron behar dugu? Hain babestuta dagoen teknologia gure eskutian izan arte geldirik egon behar dugu? Zaurgarri egingo ez gaituen beste teknologia bat sustatzeko aukerak aztertu behar direla uste dut, eta horretarako beste politika bat behar dugula. ●